

Gaitasun digitala sustatu, konparatu eta ebaluatu egiten da

Azpiaztergai honek nabarmentzen du zer-nolako garrantzia duen pertsonalarentzat eta ikasleentzat teknologia digitalak irakaskuntzarako, ikaskuntzarako, ebaluaziorako eta lidergorako modu eraginkorrean erabiltzeko beharrezko gaitasun digitala (GD) egiaztatzeak. Hemen sartzen da, bestalde, erakundeak duen erantzukizuna eta jarri behar duen arreta pertsonalaren eta ikasleen segurtasuna eta ongizatea ziurtatzeko, digitalki inplikatzan dituen aldi berean. Segurtasuna eta arriskuekiko kontzientziatzea, portaera arduratsua argi ulertzearekin orekatuta, garrantzi handikoak dira.

Pertsonala eta ikasleak gai dira arlo digitalean

Erakundeak prozesu batzuk ditu ezarrita nolabait ere ziurtatzeko **pertsonalak eta ikasleek konfiantza dutela, eta gai direla, teknologia digitalak eguneroko jardunbideetan** (irakaskuntzan, ikaskuntzan, ebaluazioan, administrazioan) **integratzean**, eta gai direla hezkuntzaren arloko beren premiak eta espektatibak asebetetzeko gailu, software, aplikazio, eduki digital eta online zerbitzu egokienak aukeratzeko (edo horietara sartzeko).

Lehenengo mailan jartzen dira online inguruneetako segurtasuna, arriskuak eta portaera arduratsua

Pertsonalaren eta ikasleen gaitasun digitalak barne hartzen ditu online inguruneetan portaera arduratsua izateko arauak, arriskuen gainean kontzientziatzea eta segurtasuna.

Pertsonalaren eta ikasleen gaitasun digitalaren (GD) konparatiboa egiten da

Erakundearen planetan gaitasun digitala garatzeko neurriak deskribatzen dira. Erakundeak online erreminta eta marko garrantzidunak bereganatu/moldatu ditu (esate baterako, DigComp markoa, IKT gaietako irakasleen kompetentzietarako UNESCOren markoa) **pertsonalaren eta ikasleen gaitasun digitala** sistematikoki **ebaluatzeko**.

Gaitasun digitala sartuta dago pertsonalaren balorazioan

Gaitasun digitala kontuan hartzen da pertsonalaren errendimendua baloratzean.